

## 42. ALDIZKARIA - 2020ko martxoaren 2a

### **Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren 2020ko koefizienteak eta karga-tasak**

Barañaingo Udalak, 2020ko urtarrilaren 30ean egin osoko bilkuran, jarraian ematen den erabakia hartu zuen hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren 2020ko koefizienteak eta karga-tasak ezartzeko.

Ikusirik 2019ko 255. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 31n, argitaratutako 29/2019 Foru Legea (zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa), eta kontuak harturik horrek aldatzen duela Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175.2 artikulua (hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergarako gehienez ere onesten diren koefizientei eta tasei buruzkoa), koefiziente eta karga-tasa berriak onesten dira 2020tik aurrera egiten diren ondasun higiezinaren eskualdatzeetan aplikatzeko, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Horretarako:

ERABAKITZEN DA:

Lehena.–Onestea lurren balio-gehikuntzaren gainean sortzapena egiteko unean aplikatu beharreko koefizienteak –balio-gehikuntza noiz sortzen den, horren araberrakoak– eta kuotak zehazteko zerga-oinarriari aplikatu beharreko karga-tasak, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioaren ondorioetarako. Honako hauek dira:

<b>URTEAK</b>	<b>KOEFIZIENTEAK</b>	<b>KARGA-TASAK</b>
Urtebetetik behera	0,02	%25
1	0,02	%25
2	0,03	%25
3	0,04	%25
4	0,05	%25
5	0,07	%25
6	0,07	%25
7	0,06	%25
8	0,06	%25
9	0,06	%25
10	0,06	%25
11	0,06	%25
12	0,06	%25
13	0,06	%25

## 42. ALDIZKARIA - 2020ko martxoaren 2a

---

14	0,06	%25
15	0,06	%25
16	0,09	%25
17	0,09	%25
18	0,25	%25
19	0,27	%25
20 edo hortik gora	0,28	%25

Bigarrena.–Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, koefiziente eta tasa horiek aplikagarriak izateko argitaratu eta biharamunetik aurrera.